

HARIAN

Herrialde txiroyak garatzeko, haien eta aberatsen konpromisoa behar dira

Munduko Landagunearen III. Biltzarra hasi da, Garapen Solidariorako konpromisoen bila

Irune lasa

Donostia

Bera Herbehereetako garapen ministro zela gertatu zen. Tokiko garapen proiektu bat jarri zuten abian Tanzanian eta hura diruz lagundu, hango esne behien ekoizpena handitzeko xedez. Helburua lortu zuten: esne gehiago biltzen zuten Tanzaniako eskualde hartako abeltzainek. «Baina atzerritik, Herbehereetatik, zetorkien esnea askoz ere merkeagoa zen!». Eveline Herfkens Nazio Batuen Erakundeko Milurtekoko Helburuen munduko koordinatzaileak adibide bat eman nahi zuen urte askotan, herrialde aberatsek pobreei emandako laguntzek nola kale egin duten azaltzeko.

Hain zuzen, garapena dute hizpide atzo hasi eta eta bihar arte Munduko Landaguneari antolatutako hirugarren biltzarrean. 20 herrialdetako 70 ordezkariak gora bildu dira *Garapen solidarioaren bidean: erronka eta konpromisoaz* eztabaidatzeko. Gaur nekazaritza gaietara gehiago hurbilduko dira. Atzo, aldiz, garapenaren munduko egoera orokorra aztertu zuten.

Munduko Landagunearen presidente Juan Luis Laskurainek garapen horrek solidarioa izan behar dela azpimarratu zuen Biltzarraren zabalera hitzaldian: «Indartsuenaren legean oinarritutako globalizazioaren ordez, elkartasuna da globalizatu behar dena». Ildo horretan, herrialdeen artean guztientzako onuragarriak izango diren elkartrukeak bermatzeko «arau etiko-juridikoak» ezartzearen alde agertu zen. Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde Idoia Zenarrutzabeitiak ere parte hartu zuen biltzarraren inaugurazioan eta Gasteizko Gobernuak NBEren Milurteko Helburuekin bat egin duela gogoratu zuen.

Muturreko pobrezia eta gosea ezabatzea, lehen hezkuntza unibertsalizatzea edota haurren hilkortasuna murriztea dira Milurteko Helburu horietako zenbait. Orain arte ez bezala, garapenerako laguntzek helburu jakinak eta epe zehatzak (2015. urtea) dituztela nabarmendu zuen Eveline Herfkensek. Herfkensek beste gauza bat ere argi utzi nahi izan zuen: «Ez ditugu guk garatzen, eurak beraiek garatzen dira». Hori bai, laguntza jaso behar duten herrien eskatzen zaizkien konpromisoaz gain, herrialde laguntza emaileen konpromisoa ere behar dela uste du, «ez gara eta emandako hitza betetzen ari».

Herrialde aberatsetako nekazaritzak jasotzen dituen eta txiroyen esportazioentzako oztopo diren laguntzak kritikatu zituen Pedro Luis

SAIL HONETAN

[CiUk irabazi ditu berriz K bozak](#)

['Artur Mas for president'](#)

[Alde handia](#)

[Getxon kutxa bati koktel dizkiote, eta Zumarragar batzokiari](#)

[Manifestaziora deitu dute autodeterminazioaren alderasoen kontra, Bilbon](#)

[ETAren borondatea «egiaz ez bada prozesua «gelditu dela dio Lopezek](#)

[Kirolean eta musikan da](#)

[Adopzio eskubide eske](#)

[Nazioarteko Konfederazi jaio da globalizazioaren \(aurre egiteko](#)

['Stern txostenak' Nafarro energia plana txarresten ekologisten ustez](#)

[Bi gizon atxilotu dituzte, beren bikotekideak jotze](#)

[Eskualdeko hainbat erag babesa jaso dute Lea-Arri gregalariek](#)

[855](#)

[«Haiek izan zirelako gara](#)

[Enpresaburu baten gorpu dute Hondarribian](#)

[62 urteko gizon baten gorpu aurkitu dute Sadar ibaian](#)

[Bi autok aurrez aurre jo lagun zauritu dira Aizarn](#)

[Jaurlaritzak EBN duen ordezkariaren 20. urte ekitaldia, gaur](#)

[Libanoko Gobernuak asmoak salatu ditu Wash](#)

[Gazan erasoaldi gogorra zortzi palestinar hil ditu](#)

[Blairrek ez du bazterter egokian» Iraken inbasioa](#)

Uriartek ere. Economía, Empresa y Estrategiako presidentea egungo sistema ekonomikoa, eta haren erronkak zein arriskuak laburbiltzen saiatu zen bere hitzaldian. Besteak beste, 22 urtetan bere errenta bikoiztuko du munduak, XX. mendean 50 urte behar izan zituenean. «Baina ez gara *wonderland*en bizi», azaldu zuen Uriartek, 1.100 milioi lagun muturreko pobrezian bizi direnean. Uriarteren ustez, pobrezia, desberdintasunaren, hezkuntzaren eta osasunaren arazoak konpontzea erabat kritikoa bihurtu da munduaren oreka eta hazkunderako, «ikusuntu kapitalistatik» bertatik ere.

Jose maria zeberio Munduko Landagunearen zuzendaritzako idazkaria

«Emailtzat jotzen gaituztenean oso zorrotzak bihurtzen gara berehala»

I.L.

Donostia

Bi egunez Miramongo Parkean eta larunbatean Arantzazun Munduko Landagunearen III. Biltzarra egingo da. Jose Maria Zeberioentzat elkartearen sinesgarritasuna neurtzeko «termometroa» da. Euskal Herrira hurbildutakoak ikusita, gustura zegoen atzo.

Hasteko, aurkezpenak. Zer da Munduko Landagunea?

Hiru arlotan lan egiten duen garapen elkarte bat da. Batetik, nekazaritza eta landa inguruan garapenean ari diren erakundeekin sare bat sortu nahi da; bigarrenik Hirugarren Munduan garapen proiektu zehatzak egin nahi ditu; eta hirugarrenik munduko erakundeen aurrean eragin bat izatea.

Garapen solidarioa duzue hizpide.

Garapena ezin da planteatu bakoitzak ahal duena eginez. Bakoitzak bere ardurak hartu behar ditu, baina elkartasuna ere behar da elkarrekiko. Biltzar honetan perspektiba desberdinak bildu ditugu gai horren inguruan aritzeko. Nekazarien ordezkariak, adituak, ekonomistak, gobernuetako arduradunak... Guztien artean konpromiso batzuetara iritsi nahi genuke, datozen lau urteetarako lana finkatzeko.

Herrialde txiroen konpromisoaz gain, aberatsek hartu beharrekoak ere azpimarratu dira gaur.

Guztiori gustatzen zaigu elkartasuna hartzaile garenean. Emailtzat jotzen bagaituzte, ordea, berehala hasten gara trabak jartzen. Oso zorrotzak bihurtzen gara... Hori da gizalegea.

Euskal nekazaritzaren eta landaren errealitatea ere landuko da?

Bai, hemen dauden arazoak eta mundu mailan daudenak antzekoak dira. Baina badira diferentziak: hemen arazoei aurre egiteko baliabide askoz handiagoak daude. Eta hemen jendeak nekazaritza utzi nahi badu, beste bizimodu bat eskuratzea erraza du. Aldiz, beste hainbat herrialdetan emigrazioa da alternatiba bakarra. Gaur esan zaigu problema hau oso presente izango dugula, eta kanpotarrak hartu beharko ditugula gure ekonomiak berak hala eskatzen duelako, baita tokian tokiko garapena

[Kolonbian 16 pertsona h FARCEk, bi erasotan](#)

[Malkoak krokodilo handi](#)

[Polizia Oaxacara bidali iz gaitzetsi du Lopez Obrad](#)

[IRAK aginte egiturari eus esan du PSNI poliziako b](#)

[Ipar Korea negoziazio m itzuliko da, blokeoa kenc](#)

[Ugandako Jainkoaren Eri Armadaren su-etena](#)

[Petrolio plataforma bat n 75 langilerekin, Norvegia](#)

bultzatzeko zerbait gehiago egin behar dugula ere.

© BERRIA-Edizio Digitala
berria@berria.info - www.berria.info

[Lege Informazioa](#)

Euskal Editorea S.L. , Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel 943 304 030 Fax 943 590 17.

